

UEUren COVID-19 PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK

Orokorrean, osasun agenteek ikastetxeetarako emandako segurtasun- eta higiene-neurriak jarraituko dira.

- **Pertsona guztiek higiene pertsonaleko neurriak** hartu beharko dituzte:
 - Horrelako sintomarik baduzu, ez etorri (37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usainik edo dastamenik ez izatea).
 - Ekarri zeure musukoa.
 - Eskuak maiz garbitu urarekin eta xaboiarekin edo gel desinfektatea erabiliz.
- **Egoitzako sarrera eta irteerak:**
 - Pertsona-mugimenduak hala eskatzen duenean ordutegiak markatuko dira, pertsona-mugimenduak mailakatuak izateko.
 - Pertsona-mugimenduak hala eskatzen duenean , sarrerako eta irteerarako ate independenteak erabiliko dira.
- **Pertsonen zirkulazio-noranzkoak** zehaztu eta seinaleztatuko dira.
- **Jende-pilaketak saihestuko** dira.
- Egoitza barruan, **musukoa ezinbestekoa** izango da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa izan.
- **Ikasgelak: aforo maximoak** zehaztu dira, partaideen 1,5 metroko distantzia bermatzeko.
- **Espazio komunetan** (pasilloak, eskailerak, komunak...) erabilera mailakatua sustatuko da.
 - Eskaileraren erabilera lehenetsiko da, igogailua salbuespenetan bakarrik erabiliko da.
- Erabilitako **espazioak bi ordurik behin aireztatuko** dira.
- **Idazkaritza eta harrera-guneetan** segurtasun-distantzia mugatuko da.
- **Higiene eta garbitasuna** bermatuko da:
 - Ikasgelak: jarduerak hasi aurretik eta ondoren desinfektatuko dira.
 - Komunak: jarduerak hasi aurretik eta ondoren desinfektatuko dira.
 - Gel desinfektantea egongo da egoitzen sarrera/irteera eta ikasgela bakoitzean.
- **Hondakinen kudeaketa** arduratsua egingo da.
- UEUren jardura UEUk kudeatzen ez duen egoitza baten ematen bada, bertako segurtasun- eta higiene-neurriei jarraituko zaie, betiere UEUren irizpideei jarraituta.

Denon osasuna zaintzea guztion eginkizuna da, izan gaitezen arduratsuak.

Jarraibide hauek larrialdi-egoeraren fase eta momentuko irizpide eta arauen arabera moldatzen eta egokitzen joango gara.

Eibarren, 2020ko urriaren 2an